

EXFIBAR 2012

XLIII. Seilu erakusketa
XLIII Exposición Filatélica



ARMERIA ESKOLA - ESCUELA DE ARMERIA
1912-2012
EIBAR





ASOCIACION FILATELICA ARRATE ARRATE FILATELDI ELKARTEA

Email: luismariado@euskalnet.net

Apartado, 33

20600 EIBAR (Gipuzkoa)

BATZORDE ANTOLATZAILEA • COMISIÓN ORGANIZADORA

PRESIDENTEA / PRESIDENTE:

Fidel Saéz Aguinaga

IDAZKARIA / SECRETARIO:

Juan Gómez Barranco

DIRUZAINA / TESORERO:

Alberto Elizondo Retolaza

HARREMAN ARDURADUNA / RELACIONES PÚBLICAS:

Diego Aguilar Verdejo

ERAKUSKETAREN BOKALA / VOCAL DE EXPOSICIÓN:

Jenaro Escibano

MONTAJEA / MONTAJE:

Isidro Rejo Lorenzo

Luis M^a Domínguez Gallo

2012ko azaroaren 25etik abenduaren 2ra

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 18:00-20:00

Larunbata eta igandea: 12:00-14:00, 18:00-20:00

Azaroaren 30ean itxita

del 25 de Noviembre al 2 de diciembre de 2012

Horario:

De lunes a viernes: 18:00-20:00

Sábado y domingo: 12:00-14:00, 18:00-20:00

30 de noviembre cerrado

JATORRIZKO ZIGILU-MARKA
MATASELLO ORIGINAL DE
 José Ángel López



Horario del matasello
Día 25: 12:00-14:00 h 18:00-20:00 h.

SELLO





LA HISTORIA. LA ESCUELA AYER

“Una necesidad. Una intuición popular”, era el título del capítulo que abría el libro de la Historia de la Escuela de Armería que con motivo del 50 aniversario del centro escribió el historiador Pedro Celaya. Y a continuación descifraba su frase: “Muchas veces me he preguntado ¿quién fue el hombre insigne que proyectó la fundación de la Escuela de Armería? Hoy, después de consultar no pocos archivos y referencia, me veo obligado a contestar: Fue Eibar, con su intuición, con su espíritu de honradez, con su sentido progresista quien sintió la necesidad de la Escuela e intuyó su fundación. Fue intuición popular”.

HISTORIA. ESKOLA, BEHIALA.

“Beharra. Herriaren asmamena”. Horixe zen, ikastetxearen 50. urteurrenean, Pedro Celayak idatzita, Armeria Eskolaren historia jasotzen zuen liburuari hasiera ematen zion kapituluaren izena. Eta horren ondoren, atalburuaren muina zehazten zuen: “Askotan galdetu diot ene buruari zein izan ote zen Armeria Eskola jasotzea otu zitzaion gizon argi hura. Gaur, artxibo eta erreferentzia ez gutxi kontsultatu ondoren, derrigortua nago erantzun hau ematera: Eibar bera izan zen bere asmamenarekin, bere zintzotasunarekin, bere zentzu aurrerakoiarekin, Eskolaren beharra sentitu eta eskola jasotzea asmatu zuena. Herriarena izan zen asmamen hura.”

El 6 de enero de 1913 se inauguró el primer curso de esta singular escuela, pionera de las escuelas profesionales en España. La importancia que la Escuela de Armería ha tenido en la economía y en la industria rebasa el ámbito de la comarca, y es fundamental para entender el desarrollo industrial de Eibar.

Lanbide eskoletan aitzindaria Espainian, 1913ko urtarrilaren 16an inauguratu zen eskolaren lehenengo ikasturtea. Armeria Eskolak industrian eta ekonomian izan duen garrantzia eskualdetik haratagokoa da; ezinbestekoa da Eibarko industria-garapena ulertzeko orduan.




Ya en 1910 se plantea en el Ayuntamiento de Eibar la necesidad de la creación de una escuela donde se debía de unir la práctica y la teórica de los diferentes trabajos y especialidades de la industria eibarresa. Por aquel entonces era normal el ingreso de los jóvenes, como aprendices, en las fábricas, donde permanecían hasta tres años sin cobrar aprendiendo el oficio.

Eibarko udalean, 1910ean, eskola bat sortzeko premia edo beharra zegoela azaldu zen zegoeneko; eskola horrek Eibarko industriaren lan klase eta espezialitate denak bilduko beharko zituen. Sasoi hartan, normala izaten zen gazteak tailerretan aprendiz sartzea eta hiru bat urte inguru, kobratzeke, ofizioa ikasten ibiltzea.

EXFIBAR 2001

Centenario Ayto. de Eibar
Udaletxeak ehun urte



XXXII Exposición Filatélica 25/11
Seilu Erakusketa 2/12



Desde el ayuntamiento eibarrés se realizaron diferentes gestiones para conseguir la financiación de una escuela profesional en la especialidad de armería.

En busca de un modelo concreto que aunara la teoría y la práctica, Pedro Goenaga visitó varias escuelas de oficios españolas y europeas. El 7 de junio de 1911, con motivo de un congreso de bancos de pruebas en Lieja (Bélgica) visita la escuela "Ecole d'Armerie", en donde encuentra lo que estaba buscando. Recoge la información oportuna y con el apoyo del entonces Ministro de Fomento, Fermín Calbetón, se comienza a realizar las gestiones pertinentes para la construcción de la escuela.

El 1 de junio de 1912 en sesión solemne el Ayuntamiento de Eibar aprueba

Eibarko udalak, hainbat gestio egin zituen armagintza espezialitateko lanbide eskola bat jasotzeko finantzabidea bilatzeko.

Praktika eta teoria elkartuko zukeen eredu baten bila, Pedro Goenagak ofiziotako hainbat eskola bisitatu zituen, Espainian eta Europa aldean. 1911ko ekainaren 7an, Liejan (Belgika) arma probalekuen kongresu bat zela eta, hango École d'Armurerie bisitatu zuen eta hantxe aurkitu zuen bila zebilena. Behar ziren argibide guztiak jaso zituen eta orduko Sustapen Ministroaren laguntzarekin, Fermín Calbetón, eskola eraikitzeko egin beharrekoak egiten hasi ziren.

1912ko ekainaren 1ean, Eibarko udalak egindako udal osoko bilkuran, Pedro Goenagak aurkeztutako mozioa onartu zen aho batez. Mozio har-

por unanimidad la moción que Pedro Goenaga presenta pidiendo “la implantación de una Escuela de Armería, Dibujo, Artes y Oficios, exposición permanente de los productos de la villa, museo de armas (Museo de la Industria Armera de Eibar) y sección de modelos de armas de fabricación extranjera no explotadas”. La moción aprobada por unanimidad es respaldada, con entusiasmo, por todo el pueblo de Eibar y Fermín Calbetón realiza gestiones para la recaudación de fondos.

tan armagintza, dibujoa, arteak eta ofizioak ikasteko eskola bat jartzea eskatzen zen, aldi berean, herriko produktuen erakusketa iraunkorra, arma museoa eta atzerrian fabrikatutako arma klase ez ustiatuak izango zituen eskola. Aho batez onartutako mozioak herri osoaren laguntasuna jaso zuen; gogoz hartu zuen Eibarrek asmoa; Fermín Calbetón dirua bilatzeko gestioak egiten hasi zen.



El 1 de octubre de 1912, Ayuntamiento de Eibar, en sesión extraordinaria, aprueba los Estatutos y el Reglamento y determina su futura construcción. La escuela sería propiedad municipal y de carácter netamente popular. En su junta de gobierno figuran todos los

1912ko urriaren 1ean, Eibarko udalak, udal osoko bilkura berezian, Estatutuak eta Erregelamendua onartu zituen eta haren eraikuntzaren gorabehera guztiak zehaztu zituen: Eskola udalarena izango zen, izaeraz eta sustraiz, herriarena. Eskolaren gobernu batzarrean zinegotzi



concejales así como representantes del Banco de Pruebas de Armas y de diversas empresas importantes de la localidad. En el Comité Ejecutivo figuran cuatro representantes del ayuntamiento, dos por los patronos y uno por los obreros.

El 6 de enero de 1913 se inaugura el primer curso a la vez que se pone la primera piedra de su definitiva ubicación.

El primer director del centro fue José Carnicero, aún de forma provisional, y Julián Echeverría sería el que inauguraría oficialmente la escuela el 24 de junio de 1914. Bajo su dirección la Escuela de Armería no solamente fue la primera de España, sino también la única durante muchos años que supo combinar en los programas de estudio,

guztiak zeuden, baita Arma Probalekuko ordezkariak eta herriko hainbat tailer handietakoak ere. Lantalde eragile hartan lau udal ordezkari, tailerdunen ordezkari bi eta beharginen ordezkari bat zeuden.

1913ko urtarrilaren 6an inauguratu zen aurreneko ikasturtea, eta eskolaren lehenengo harria ere orduan ipini zen.

Lehenengo zuzendaria José Carnicero izan zen, aldi baterako izan bazen ere. Eskola 1914ko ekainaren 24an modu ofizialean inauguratu zenean Julián Echeverría zen zuzendaria. Haren gidaritzapean, Armería Eskola ez zen izan bakarrik Espainiako lehenengo eskola, ikasketa-programetan, doitasuneko ahokadura mekanikoan, praktika eta teoria batzen jakin zuen eskola bakarra baizik, eta Eibar, Espainia



de Ajuste y Precisión Mecánica, la teoría y la práctica, haciendo de Eibar la Meca de los centros de Mecánica de Precisión y Armería de toda España, comparable a sus homólogos extranjeros.

De 1913 a 1950

El primer período, el que va desde la inauguración a la Guerra Civil, se caracteriza por un crecimiento constante de las instalaciones del centro así como por el número de alumnos.

osoko Armagintza eta Doitasuneko Mekanikagintzaren erdian jarri zuen, atzerrian zeuden haren antzeko eskolen maila berean.

1913-1950

Eskolaren hasiera hartan, zabaldu zenetik Gerra Zibileraino, bai instalazioak, bai ikasle-kopurua, etengabe joan ziren handitzen eta gehitzen.

1925ean 3 ikasturteko ikasketa-plana zuen. Hurrengo urtean, 1926an, industria-ikasketen eskoletan estatuak



En 1925 tenía un plan de estudios de 3 cursos. Al año siguiente, 1926, debe adaptarse a la nueva organización que el estado realiza de las escuelas de enseñanzas industriales, estableciéndose los títulos de Oficialía Industrial y Maestría Industrial. En abril de 1937, cuando las tropas del general Franco toman Eibar, la escuela se encuentra en la ruina, (no en vano Eibar había permanecido en la línea del frente desde septiembre de 1936).

Gracias al empeño y la abnegación de eibarreses de pro en octubre de 1938 consiguen que se vuelva a abrir la Escuela bajo la dirección de Cándido Astaburuaga. Poco a poco la normalidad se va imponiendo y a finales de los años 1940 se plantea la necesidad de una ampliación de instalaciones de-

egin zuen antolaketa berrira egokitu behar izan zuen eta Industri Ofizialtza eta Maisutza Industrialia tituluak ezarri ziren. 1937ko apirilean, Franco jeneralaren tropek Eibar hartu zutenean, Eskola hondatuta zegoen, izan ere, Eibarren bertan frentea egon baitzen 1936ko irailaz geroztik.

Eibartar ezagun askoren ahaleginari esker, Eskola berriro 1938ko urrian zabaltzea lortu zuten Cándido Astaburuaga jaunaren zuzendaritzapean. Apurka, normaltasuna gailentzen joan zen eta 1940aren amaiera aldean instalazioak handitzeko premia planteatu zen, ikasleek egindako eskaera-kopurua benetan handia zelako. 1948an onartu zen Eskola handitzeko proiektua eta obrak 1950ean hasi ziren egiten.



bido al gran número de solicitudes de alumnos. En 1948 se aprueba el proyecto de ampliación y las obras empiezan en 1950.

Ese mismo año, el 1 de diciembre de 1950, se crea la Asociación de Antiguos Alumnos con el propósito de apoyar e impulsar al centro.

De 1950 a la actualidad

Ante la falta de financiación económica necesaria para finalizar el proyecto de obras, el 10 de mayo de 1950, se acuerda, en sesión conjunta del Patronato de la Escuela y del Ayuntamiento de Eibar, la cesión de la misma al Ministerio de Educación Nacional por el precio simbólico de un millón de pesetas,

Urte hartan bertan, 1950. urteko abenduaren 1ean, Antzinako Ikasleen Elkartea sortu zen, ikastetxea bultzatzeko asmoz.

1950az geroztikakoa

Obra-proiektua amaitzeko behar zen finantzazio faltagatik, 1950eko maiatzaren 10ean, Eskolako Patronatuak eta Eibarko udalak egindako bilkura batean, Eskola Hezkuntza Ministerioaren eskuetan uzteko erabakia hartu zuten milioi bat pezetaren truke, prezio simbolikoa. Horren truke, ministerioa izango zen Eskola handitzeko obrak hurrengo urteetan amaituko zituen.

Obrak handik hamar urtera inauguratu ziren, Jose Ormaechea zuzenda-

**Merche Santiago
Barrena, 24 - 3º F
20600 Eibar**



con el compromiso del ministerio de finalizar las obras de ampliación, que se llevan a cabo en los años siguientes.

Las obras se inaugurarían diez años después, en 1960, siendo director José Ormaechea. Ormaechea impulsaría, con una tenacidad y seguridad tal, su idea de la escuela que ésta creció y se desarrolló ostensiblemente bajo su mandato. A él se debió la implantación de las especialidades de electricidad, electrónica, delineación y micro mecánica. Esta última con la colaboración de la escuela de micro mecánica de Neuchâtel (Suiza).

La implantación de la especialidad de micro mecánica fue especialmente

ri zela. Ormaecheak eskolari buruz zuzen ideari jarraiketasun eta ziurtasun osoz eutsi zion eta sekulako gorakada izan zuen haren agintepean. Hari esker ezarri ziren elektrizitate, elektronikak, delineazio eta mikro-mekanika espezialitateak. Azken espezialitate hori, Suitzako Neuchâtel herriko mikro-mekanika eskolaren laguntzarekin.

Espezialitate hori ezartzea benetan zaila izan zen, Espainia osoan ez zegoelako horrelako ikasketarik. Azkenean, 1972. urtean, Espainiako printzeak aurrean zeudela inauguratu ziren espezialitate horretako instalazioak.

Ikastetxearen garapena eta moderni-



compleja en su gestación al tratarse de una disciplina nueva en toda España. Por fin en 1972 se pudieron inaugurar, con la presencia de SS.MM. los Príncipes de España, las instalaciones de esta especialidad.

El desarrollo y modernización del centro ha sido constante en todos los aspectos. En 1975 se inicia la especialidad de Ayudante de Laboratorio y en 1978 se crea la especialidad de Control de Calidad.

En sus instalaciones, talleres y laboratorios se han llevado a cabo labores de investigación y desarrollo para las empresas de la zona, de tal suerte que en 1980, en colaboración de la Aso-

zazioa geratu gagekoa izan da. 1975ean hasi zen Laborategiko Laguntzaile espezialitatea ematen eta 1978an sortu zen Kalitate Kontrolekoa.

Eskolaren instalazioetan, tailerretan eta laborategietan burutu dira eskualde honetako tailerretarako ikerketa- eta garapen-lanak, eta horrela, 1980an, Antzinako Ikasleen Elkartearekin eta eskualdeko enpresaburuekin elkar hartuta, Tekniker ikerketa zentroa fundatu zen, denboraren joanarekin, Euskal Herriko ikerketa-zentro nagusienetako bat bilakatuko dena, IK4 Aliantzako kide.

Armeria Eskolara krisialdira eraman zuten 1970eko Hezkuntzaren Lege



ciación de Antiguos Alumnos y el empresariado de la comarca, se funda la asociación de investigación Tekniker, que se ha convertido, en el tiempo, en uno de los centros de investigación referentes del País Vasco, perteneciente a la alianza IK4.

La Ley General de Educación de 1970 y, especialmente, la reforma de la enseñanza secundaria de 1990, llevaría a la Escuela de Armería a una crisis, al perder parte de lo que había sido su objetivo desde su fundación. La pérdida de la enseñanza profesional desde los 14 a los 16 años, que pasa a formar parte de la ESO (Enseñanza Secundaria Obligatoria) y la explosión de las titulaciones universitarias técnicas, enturbiaron, en parte, los objetivos que el proyecto de la Escuela de Armería venía siguiendo desde su fundación.

Los últimos años del siglo XX vinieron a poner un poco en orden las nuevas

Orokorrak eta, bereziki, bigarren hezkuntzaren 1990eko erreformak, sortu zenean bere helburu zen zer hartatik zati handi bat galdu zuelako. Alde batetik, 14tik 16 urte bitartekoak lanbide-prestakuntzatik kanpo geratu ziren eta edade horretako ikasle guztiak DBHan sartu ziren, eta bestetik, Unibertsitateko titulazio tekniko berrien ugalketaren ondorioz, Armeria Eskolari lainotu egin zitzaizkion bere jaiotzatik zuen proiektu haren helburuak.

XX. mendearen akabera aldean gauzak zertxobait aldatu ziren hezkuntza teknikoaren alorrean, espezialitate berriak sortu ziren, Eskolak duen izpirituaren bultzada hori mantenduta. Eibarko Ingeniaritza teknikoko Goi Eskola Teknikora (antzinako Unibertsitate Laborala) hurbiltzeak -ikasketa horiek eskuratzeko orduan izandako tirabiren ondoren- eta Teknikerrekin eta eskualde honetako eta ingurueta-



formas de la educación técnica y se desarrollaron nuevas especialidades en las que se mantienen el impulso del espíritu de la Escuela. El acercamiento a la Escuela Técnica Superior de Ingeniería Técnica de Eibar (Antigua Universidad Laboral), después de una rivalidad por conseguir estos estudios, y la colaboración con Tekniker y las empresas del entorno han hecho que la Escuela vuelva a recuperar la línea emprendedora que le caracteriza.

Adaptada a las nuevas normas educativas la Escuela de Armería consta en la actualidad de dos áreas formativas diferentes además de otros servicios orientados a la promoción y facilitación para la creación de nuevas empresas y el desarrollo de proyectos de innovación tecnológicos y metodológicos.

Una de las líneas está orientada a la formación de jóvenes, en la que se imparten Ciclos Formativos de Grado Medio y Formación Profesional de Grado de Superior. Complementando

ko enpresekin elkar lanean aritzeak, Eskolari, betidanik erakutsi duen ekintzaile izate horri eusteko aukera eman dio.

Hezkuntza-arau berrietara egokitu-ta, Armeria Eskolak gaur egun pres-takuntza alor ezberdin bi ditu, enpre-sa berriak sortzeko eta berriztapen tek-nologikoko eta metodologikoko proiektuak garatzeko eskaintzen di-tuen gainerako sustapen zerbitzu ho-riez gain.

Lan-ildo horietako bat gazteak pres-tatzera zuzendutakoa da, Erdi Maila-ko Heziketa Zikloak eta Goi-mailako Lanbide Heziketa ematekoak. Araututako prestakuntzaren osagarri, lan munduan sartuta dauden pertso-nendako programa bat garatzen da (prestakuntza etengabea), baita lan-gabezia dauden pertsonendako ere (lanerako prestakuntza). Horrez gain,




la formación reglada se desarrolla un programa para personas que ya están inmersas en el mundo laboral (formación continua), así como para personas que están en situación de desempleo (formación ocupacional), además de programas específicos para personas en riesgo de exclusión, en coordinación con las diferentes administraciones.

PREMIOS, RECONOCIMIENTOS Y VISITAS ILUSTRES

Son varios los galardones recibidos por la Escuela en reconocimiento a su labor en el campo de la educación y por la alta preparación de su alumnado, así como por su avanzado sistema de gestión.

A continuación nombramos algunos de ellos.



programa zehatzak daude baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzat, administrazio guztiekin koordinatuta.

SARIAK, AITORPENAK ETA BISITARI OSPETSUAK.

Eskolak hainbat sari jaso izan ditu hezkuntzaren alorrean egindako lanagatik eta bere ikasleek duten prestakuntza handiagatik, baita bere kudeaketa-sistema aurreratuagatik ere.

Hona hemen sari horietako batzuk:

Aitorpenak:

- Alfontso X. Jakitunaren gorbata.
- Irakaskuntzako diploma berezia.
- Gipuzkoako Urrezko domina
- Arte eta Ofizioetako II. Erakusketa Nazionalaren domina.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deitutako Metodologia Berritzaileen 1. saria.

Reconocimientos

- Corbata de Alfonso X el Sabio.
- Diploma Especial de Enseñanza.
- Medalla de Oro de Guipúzcoa.
- Medalla II Exposición Nacional de Artes y Oficios.
- 1º premio de Metodologías Innovadoras convocado por el Dpto. de Educación Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.
- Finalista en la convocatoria sobre Buenas Prácticas de Innovación convocada por Euskalit.
- ISO 9001
- Q de plata según el modelo de excelencia EFQM
- Certificado EKOSKAN de gestión medioambiental.



- Finalista Euskalit-ek deitutako Berrikuntzaren Praktika Onak sarian.

- ISO 9001.

- Zilarrezko Q, EFQM ereduaren arabera.

- EKOSKAN ziurtagiria, ingurumen kudeaketakoa.

- 5S

Armeria Eskolak ikastetxe gisa jaso dituen sariak albo batera utzita, Eskolako ikasleek hainbat eta hainbat lehiaketatan eta saritan irabazle atara eta

- 5S

Aparte de los galardones recibidos por Armería Eskola como centro de enseñanza, es un orgullo que los alumnos de la escuela hayan sido ganadores y reconocidos en numerosos concursos y premios.

- 1º Premio de Formación Profesional convocado por el Ministerio de Educación

- 1º Premio en el 1er. campeonato de Mecatrónica de Euskadi

- 1º Premio del Concurso Ideas Innovadoras "Juan Ramos" de Ermua

- 4º Premio del Concurso ProiektEibar de proyectos tecnológicos (EUITI de Eibar).



VISITAS ILUSTRES

A lo largo de sus cien años de historia, la Escuela de Armería ha recibido la visita de cientos de personajes ilustres que han querido conocer el centro y apoyar, con su presencia, este proyecto educativo. Estas son algunas de las visitas más significativas.

aitorpen asko jaso dutela ikustea, eskolarentzat gauza handia da. Hona hemen ikasleek jasotako sari horietako batzuk:

- 1. saria Hezkuntza Ministerioak deitutako Lanbide Heziketa sarian.

- 1. saria Euskadiko Mekatronika txapelketan.

- Ermuko "Juan Ramos" Ideia Berri-tzaileen lehiaketako 1. saria.

- ProiektEibar, proiektu teknologiko lehiaketaren 4. saria (Eibarko Ingeniaritzako Goi Eskola).

IZEN HANDIKO BISITARIAK.

Armeria Eskolak bere bizi guztian jaso izan dituen bisitak kontaezinak dira; ehundaka izan dira eskola eza-gutu eta hezkuntza proiektu honen alde egin nahi izan duten pertsona ospetsuak. Hauek izan dira Eskola bisitatu izan duten pertsona esanguratsu horietako batzuk:

- Alfontso XIII, Espainiako errege. 1914.
- Javier Ugarte. Sustapen ministroa. 1914.
- Fermín Calbetón. Ogasun ministroa. 1915.
- Antonio Maura. Sustapen ministroa. 1923.
- Galo Ponte. Justizia ministroa. 1925.



- Alfonso XIII. Rey de España. 1914
- Javier Ugarte. Ministro de Fomento. 1914
- Fermín Calbetón. Ministro de Hacienda. 1915.
- Antonio Maura. Ministro de Fomento. 1923.
- Galo Ponte. Ministro de Justicia. 1925
- Prado Palacios. Ministro de Fomento. 1929.
- Francisco Largo Caballero. Ministro de Trabajo. 1933.
- José Antonio Girón. Ministro de Trabajo. 1942
- José Félix de Lequerica. Ministro de Asuntos Exteriores. 1944
- José Solís Ruiz. Gobernador Civil. 1950
- Prado Palacios. Sustapen ministroa. 1929.
- Francisco Largo Caballero. Lan ministroa. 1933.
- José Antonio Girón. Lan ministroa. 1942.
- José Félix de Lequerica. Atzerri ministroa. 1944.
- José Solís Ruis. Gobernadore zibila. 1950.
- Miguel Arburua. Merkataritza ministroa. 1952.
- Ruiz. Hezkuntza ministroa. 1955.
- Jesús Rubio. Hezkuntza Nazionaloko ministroa. 1960.
- Francisco Franco, bere gobernuko bost ministrokekin batera. 1965.
- Juan Carlos eta Sofia. Asturiasko printzeak. 1973.
- Carlos Garaikoetxea. Lehendakaria. 1982.
- José Antonio Ardanza. Lehendakaria. 1987.



- Miguel Arburua. Ministro de Comercio. 1952.
- Ruiz. Ministro de Educación. 1955.
- Jesús Rubio. Ministro de Educación Nacional. 1960.
- Francisco Franco, junto a cinco ministros de su Gobierno. 1965.
- Juan Carlos y Sofía. Príncipes de Asturias. 1973.
- Carlos Garaikoetxea. Lehendakari. 1982.
- José Antonio Ardanza. Lehendakari. 1987.
- Patxi López. Actual Lehendakari, acompañado de tres de futuros Consejeros de su Gabinete. 2008.

Además, han visitado la Escuela de Armería numerosos Diputados Generales y Presidentes de las Diputaciones vascas de todas las épocas, así como altos cargos de las diversas Administraciones educativas.

EL PRESENTE. LA ESCUELA HOY

La Escuela de Armería es hoy en día un moderno centro de enseñanza que tiene como razón de ser y objetivos fundamentales satisfacer la demanda de formación profesional industrial y ciclos formativos, para contribuir al desarrollo socio-económico irradiando un comportamiento ético a la sociedad.

Para ello, su meta es convertirse en un centro de prestigio en su zona de in-

□ Patxi López. Gaur egun lehendakari dena, gerora, bere gobernuko konseilari izango ziren hiru kiderekin. 2008.

Horiez gain Armeria Eskolak beste bisita asko izan ditu: garai guztietako Diputatu nagusi asko eta Foru Aldundietako Presidente asko izan dira eskolara etorri direnak, baita hezkuntza-administrazio guztietako goi-kargu asko ere.

ESKOLA, GAUR EGUNean.

Gaur egun, Armeria Eskola, irakas-kuntza zentro moderno bat da, helburutzat eta xede nagusitzat, prestakuntza zikloak eta industriaren lanbide prestakuntza eskabideari erantzutea duena, garapen sozio-ekonomikoari laguntzearen eta gizarteari portaera etikoa hedatzearen.

Horretarako, Armeria Eskolaren helmuga, bere eraginpeko lurraldean prestigiozko ikastetxe bilakatzea da, ikasketa-sistema aurreratuak aplikatuta, kalitatezko prestakuntza eta baliu erantsiko zerbitzu batzuk eskaintzea.

Helburu hori bilatzerakoan bere lana balore batzuetan oinarritzen du. Balore pertsonalak: errespetua, elkarbizitza, integrazioa, afektibitatea, seriotasuna, autoestimua, erantzukizuna, konpromisoa, jarrera proaktiboa, ekimena, zentzu kritikoa eta eraginkortasuna. Balore profesionalak: lantaldea, ho-

fluencia, ofreciendo una formación de calidad y unos servicios de valor añadido mediante la aplicación de sistemas de aprendizaje avanzados.

En la búsqueda de ese objetivo, fundamenta su labor en una serie de valores: Personales (respeto, convivencia, integración, afectividad, seriedad, autoestima, responsabilidad, compromiso, actitud proactiva, iniciativa, sentido crítico y eficiencia); Profesionales (trabajo en equipo, mejora continua, gestión horizontal, cooperación, formación continua y reconocimiento).

La Escuela en cifras

La Escuela de Armería de Eibar consta actualmente de dos edificios y una dotación de 68 empleados (de los que 60 son profesores y 8 de personal de administración y servicios). Dispone la Escuela de 250 empresas en las que los alumnos pueden realizar sus prácticas.

En Bachillerato y Formación Profesional de Grado Medio y Superior, se imparten enseñanzas en tres familias profesionales industriales, con ocho títulos, y 1.900 horas lectivas semanales; mientras que en Reciclaje Profesional se proponen 47 acciones formativas año, 4.040 horas/año y la participación de 470 trabajadores y desempleados reciclados.



bekuntza etengabea, kudeaketa horizontala, lankidetzeta, prestakuntza etengabea eta aitorpena.

Eskola zenbakitan.

Eibarko Armeria Eskolak gaur egun eraikin bi ditu eta 68 behargin (60 irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako 8 langile) Eskolak 250 enpresa edo tailer ditu ikasleek euren praktikak egin ditzaten.

Batxilergoan eta Erdi mailako Lanbide Heziketan eta goi mailakoan, hiru industria-lanbide familian banatzen da irakaskuntza, zortzi titulurekin eta astean 1900 ordu emanez; birziklapen profesionalean urtean 47 prestakuntza-ekintza proposatzen dira, 4040 ordu urteko, 470 langile eta langabetu birziklatuta.

LHko prestakuntza arautuaz gain eta langabetuendako eta langileendako birziklapenez gain, Armeria Eskolak ondoko zerbitzu hauek eskaintzen ditu: DNF diagnostikoak, prestakuntza planak, aholkularitza eta ebaluazioa lanbide gaitasunean, ekintzaileen

Además de la formación reglada en FP y el reciclaje profesional para trabajadores y parados, la Escuela de Armería ofrece como servicios los Diagnósticos DNF Planes de Formación, Asesoría y Evaluación en Competencia Profesional, Promoción Emprendizaje, Asesoramiento Técnico, Proyectos con Empresas o Servicio de Colocación mediante Bolsa de Trabajo.

sustapena, aholkularitza teknikoa, enprekin egiten diren proiektuak edo kolokazio-zerbitzua lan-poltsa bidez.

Itzulpena:
Begoña Azpiri, udal itzultzailea



La Asociación Filatélica Arrate quiere agradecer la colaboración de todos y cuantos han participado con su apoyo.

LAGUNTZAILEAK / COLABORAN

*BAR TXOKO
EROSKI
FILATELIA UNAMUNO (BILBAO)
EL CORTE INGLÉS
EXCLUSIVAS GORXIBA
ARCHIVOS DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR
EGO IBARRA BATZORDEA
EL CORREO
DIARIO VASCO
ARRATE IRRATIA*

HEDABIDEAK

LOS MEDIOS INFORMATIVOS

*ETA KITTO
REVISTA EIBAR
RADIO POPULAR DE LOYOLA
RADIO EIBAR (CADENA SER)*

BABESLEAK PATROCINADORES



ANTOLATZAILEA ORGANIZA

